

PALESTINA BERTSOTAN



erikidego batzordea
unrwa
euskadi

Palestinako
errefuxiatuekin



Bizkaia

fora alduntza
diputación foral

AURKIBIDEA

NORTZUK GARA.....1

NOLA SORTU DA BERTSO LIBURUXKA HAU.....2

BERTSO BILDUMA

1. Nerea Ibarzabal.....3-4

1. Iruri Altzerreka.....5-6

1. Onintza Enbeita.....7-8

1. Ondarroa BHI.....9-23

1. Elorrio BHI.....24-36



erikidego batzordea
unrwa
euskadi

Palestinako
errefuxiatuekin



Bizkaia

fora alduntza
diputación foral

NORTZUK GARA?

UNRWA Ekialde Hurbilean dauden Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia da. Agentzia arduratzen da palestinar errefuxiatuei hezkuntza, osasuna, laguntza humanitarioa eta gizarte-zerbitzuak bermatzeaz, besteak beste.

Palestinako errefuxiatuak "1946ko ekainetik 1948ko maiatzera bitartean Palestina historikoa (Israelgo egungo estatua) ohiko bizilekutzat zutenak eta gerraren ondorioz etxea eta bizibidea galdu zituztenak" dira. Haien ondorengoak ere errefuxiatutzat hartzen ditu Agentziak.

Gaur egun, 5,9 milioi dira eta Sirian, Jordanian, Libanon eta Palestinako lurralde okupatuan (Zisjordanian eta Gazako Zerrendan) bizi dira.

UNRWA Euskadi 2006an sortu zen, eta bi helburu nagusi ditu: palestinar errefuxiatuen egoerari ikusgarritasuna ematea, batetik, eta herritarrak zein erakunde publiko eta pribatuak haien aldeko laguntza emateko mobilizatzea, bestetik.

Elkartearen beste zereginetako bat, Euskadin, Giza Eskubideak sustatzea da, herritartasun globalerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez.

NOLA SORTU DA BERTSO LIBURUXKA HAU?

Bertso liburuxka hau UNRWA Euskadi elkarteak burututako eta Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako proiektu baten baitan sortu da, 2022 hasi eta 2023an bukatu dena.

Bertan Bizkaiko hiru bertsolarik eta bi ikastetxek parte hartu dute.

[Nerea Ibarzabal](#), [Onintza Enbeita](#) eta [Iruri Altzerreka](#) bertsolariak EAEn bizi diren 3 palestinarrekin elkartu ziren eta topaketa horretako elkarriketetatik bakoitzak bi bertso sorta sortu zituen.

[Ondarroa BHI](#) eta [Elorrio BHI](#) ikastetxeetako DBH4ko ikasleekin formakuntza saio batzuk burutu genituen eta saio hauen amaierako emaitza liburuxka honetan biltzen diren bertso sortak dira.

Liburuxka honen helburu nagusia Palestinako errefuxiatuen errealitatea gerturatzea da, bertsoa sentsibilizaziorako tresna gisa erabiliz.

Errefuxiatuen errealitate orokorraz gain, Covid 19ak errefuxiatuen bizitzen izan duen eragina, ingurumen arazoez eta emakumeen errealitate zehatzaz hitz egin nahi izan dugu.

BORTIZKERIAK BALDINTZATUTAKO HAURTZAROA

Tankeen trumoi hotsa,
fusilen distira
entzuten ditudanak
ama, ze hitz dira?
Iluntasun urtsutik
haur bat iritsi da (bis)
ukabil txiki bana
ateraz bizira,
berriro jaiotzeko
eremu itxira.

Lanbro hori, aldiro,
etxean, kalean,
militar talde baten
begi-seinalean...
Begiratu, kandelen
argi apalean, (bis)
nola lokartzen diren
bere magalean.
Gerra zahar baten markak
haurren azalean.

Lanbroak nahiko luke
jolasa irentsi
baina inork ezin du
poza gutxietsi.
Haurrari jarri arren
parean bi hesi (bis)
helduta poltsikoko
lau amets tolesi,
bere irudimena
badoa ihesi.

NEREA IBARZABAL

Bertsoak entzuteko
egin klik irudian:



KLIMA LARRIALDIAREN ERAGINA

Udak gogortzen, urak agortzen:
gazia min, geza gazi.
Euriak uhar bihurtu nahi du,
haziak ez du nahi hazi.
Harresipeko lur horrek zenbat
setio eta eskasi...
Azkenenerako naturak ere
gerra egiten ikasi.

Zein herrialde bizi da larri?
Zeintzuk, gasak isurtzetik?
Zama hau ere pasako al da
betikoen gorputzetik?
Nahiz ahal bezala altxatu diren
gerren bidegurutzetik,
lurrak "hustu naiz" esandakoan
nola hasten da hutsetik?

Enborrak ezin inora joan,
sustraiak tiraka dauzka
belaunaldien forma berean
hazi zelako beherunzka
biharkoaren beldurrik gabe,
eusten du bere lur puska
esku gazteen esperoan da
olibondoaren uzta.

NEREA IBARZABAL

Bertsoak entzuteko
egin klik irudian:



ERREFUXIATU GUNE BATERA MUGATUTAKO BIZITZAK

Deskribatua izan da sarri
gunea kartzela gisa,
barne mugetan hartzen baitute
gazte eta haurrek geriza.
Harremantzeko, esploratzeko
dute aukera murritza...
Kanpamentuko lau hormetara
mugatzen zaie bizitza.

Jendez gainezka egon ohi dira
gau eta egun kanpamentuak,
ia ikasteko betarik gabe
haurrak dira kaltetuak.
Eta gazteen artean asko
daudenez langabetuak...
Nola eraiki behar dituzte
haien bizi proiektuak?

Gazteok sarri etorkizunaz
ohi dugu gogoz amestu,
baina ez dira berdinak gure
jaioterri eta kontestu.
Palestinarek ezin dituzte,
bizi baldintzak saihestu...
Eta tamalez geroa dute
kanpo laguntzaren esku.

IRURI ALTZERREKA

Bertsoak entzuteko
egin klik irudian:



PANDEMIAREN ERAGINA ERREFUXIATUEN BIZITZETAN

Ondorioak mundu osoan
ezin daitezke berdindu.
Imajinatu COVIDak Gazan
harrapatu izan bazindu.
Nahiz medikuak eta erizainak
aurre egiten ahalegindu,
ahuldutako sistema baten
kolapsoa eragin du.

Lehen ere nahiko baliabide
gutxi zituzten guztira,
eta katea leherrarazteko
tantaka soil bat aski da.
Ez tratamendu, ez ekiporik...
haien oraina hori da.
Pandemiaren ostean are
zaurgarriagoak dira.

Zaila izan da distantzia jarri
behar izana kolpera,
eta gainera ez dira izan
babes neurriak sobera...
Aipatu gabe txertaketaren
erritmoaren joera...
Dena batuta ateratzen da
egun duten egoera.

IRURI ALTZERREKA

Bertsoak entzuteko
egin klik irudian:



EMAKUMEA ETA ERREFUXIATUA

Historiak bihurtu
gintuen nomada
haizearekin goaz
hona eta hara.
Izan nahi genukeena
izateko traba,
baina gorputzez ere
desberdin bazara
zarenari eustea
rutina zaila da.

Komunitate baten
arreba eta anai
geure artean ere
beti ez gaude lasai!
Zapalkuntzak baditu
horrenbeste bisai
Bagara palestinar
emakume ere bai,
ta ez dugu inoren
menpean bizi nahi.

Gure herritik urrun
dugu estalpea,
irekitzen badugu
harako atea;
sortu beharko dugu
identitatea
gorputz oro berean
libre izatea
bestela batzuentzat
da soilik bakea.

ONINTZA ENBEITA

Bertsoak entzuteko
egin klik irudian:



HARRERA BALDINTZATUA

Ze hitz arraroa den
berez "etorkina"
berdindu nahi lituzke
Txile eta Txina,
Errumania, Kuba
eta Palestina.
Hobe jatorri oroz
kontziente bagina,
han edo hemen jaio
ez baita berdina.

Afrikarrei ez zaie
begiratzen txarto
zuriekin isiltzen
badakitelako.
Arabiarrek ezer
esan eta salto,
Hego Amerikarrak
maite dira asko
gure zaharrak zaintzeko
prest datozelako.

Errefuxiatua
hartzen da suabe,
baina gure legedi
ta gure aldare:
paperik gabekoak
errespetu gabe.
Guztia aldatzen da
haizearen pare
nor zaren, nor daukazun
kontra edo alde.

ONINTZA ENBEITA

Bertsoak entzuteko
egin klik irudian:






O N D A R R O A B H I

D B H 4 K O I K A S L E A K



Herriak eta hiriak
penuriak pasatzen
bonbak eta militarrek
herria apurtzen
harresi zikin hori
askatasuna kentzen
ea gerra lehenbailen
izaten den amaitzen



P a l e s t i n a k o j e n d e a d a g o
E g o e r a l a r r i e t a n
D e n a d a b e r d i n a e g u n e r o
E z i n e g o n l a s a i a s k o t a n



Etxea galdu nuen
Palestinar gudan
Aitona hil zitzaidan
Borrokan armadan



G u d a k o h e r i o t z a
E u r e n b i h o z m i n a
T a s e n t i m e n d u h o t z a
H a u d a P a l e s t i n a



Palestina bizi den
Jende gehiena
Egunero tankeak
Entzuteko ahalmena


Maitemindu, ezkondu
Espainiara etorri
Umeak izan eta
Orain ametsgarri

Familia faltan bota
Baina distantziakin
Bizitza hobeagoa
Bere semearekin

Espainian ere zaila
Lana aurkitzea
Semea ikusi eta
Hau da bere etxea



A l a b a P a l e s t i n a n
b e r t a n b e g i r a d a
h a n d i k i h e s i d o a
a t z e r r i a n g a b a
b e r e n a h i a r e n k o n t r a
b i z i l e k u A r a b a
a s p a l d i e m a n z i o n
a z k e n b e s a r k a d a



Ezagutzen bazaitut
ez zara gaiztoa
jendeak pentsatzen du
zu zara aurkakoa
ez dute ulertu nahi
ez dela "narkoa"
Palestinan dagoen
arazo nahikoa



B i z i d i r e n l e k u a n
D e n a a m e t s g a r r i
T r i s t u r a z d a u d e n e t i k
L e k u b e l d u r g a r r i

B e r d e a e t a h o r i a
L e h e n z e n P a l e s t i n a
T a n k e e n a r r a s t o a k
E g i n d u t e m i n a




Ed a r i e n a r t e a n
U r a d a h o b e r e n a
U m e e k e z d u t e n a
H o r i d a t x a r r e n a



T e n p e r a t u r a k g o r a
T a p o l o a k b e (h e) r a
J e n d e g a r r a n t z i t s u a k
G u z t i a k b a t e r a
M a h a i b a t e a n j a r r i
T a b e r b a (e g) i t e r a



Covid-arekin etxetik irten
Militarrak ate aurrean
Garrasi bat entzun eta
Tiro egin bapatean



Emakumeak gara
Ez gara panpinak
Gulasai bizitzeko
eskubide berdinak

Palestinarrak daude
Leku baten bila
Babesa senti nahian
Zu, ni eta mila

Familiak elkartuta
Denok behar duguna
Prest gaude laguntzeko
Etorri laguna



Emakumeoi itxi
digute ezpaina
Zabaldudez atela
guretzat gortina



Hamazazpi urteko
Neska etsitua
Gizartea aldatzeko
Gogoz zutitua

Palestina herriak
Gogor ukatua
Kirola dela eta
Guztiz suntsitua



E L O R R I O B H I


D B H 4 K O I K A S L E A K



Palestinakoak daude
arnastu ezinik
Eta hemen gaude
ezerrez eginik


Haiek muraia dute
eskolara joateko
Eta Israelekoak
ez dute lagako

Umeak hiltzen daude
arrazoi eukin gabe
Eta gainera tripa
bete gabe



Gerraren eraginez
Bihotz ahuldua
Eguneroko beldur
Ta sufrimendua

Arazo ta erronkak
Aurrera eraman
Suntsipen ta eraso
Egunerokoan




T x i k i t a t i k g o g o k o
d u g u P a l e s t i n a
n o i z b a i t k o n p o n t z e a
g u r e z e r e g i n a
X X . m e n d e a n
P a l e s t i n a n r u i n a
k o n p o n b i d e e n b i l a
b e t i g u r e e r r u t i n a



P a l e s t i n a h e r r i k o
e r r e f u x i a t u a k
b i z i d i r a u m e a k
t a e m a k u m e a k
e t o r k i z u n h o b e a
h a r r e s i g a b e a k
p e r t s o n e k n a h i d i t u z t e
l u r r a l d e a s k e a k




P a l e s t i n a k o n e s k e k
A s k o t a n s u f r i t z e n
E m i g r a t z e n d u t e t a
B i z i t z a t o p a t z e n

The background features four large, irregular, textured shapes in blue and orange, resembling torn paper or fabric, positioned in the corners of the page. The text is centered in the middle of the page.

Neska gazteek kirola nahi ta
gizonek ez zieten uzten
eta Bissanen laguntzarekin
neska taldea sortu zuten
saskibaloian zein futbolean
lortu zuten bai onarpen
eta honekin jakiten dugu
badutela itxaropen



Gazako kutxaduran
dakarren ur faltan
Palestinako herrian
sortzen dauz gatazkak
nekazari artian
dauen pobrezian
eragiten dizkigu
haserre handiak



U r a h i r u e g u n e z
b a k a r r i k a s t e a n
g u t x i e g u n e a n
t a p e r t s o n a g e h i e g i
l e k u b e r d i n e a n
o n d o r i o z g a t a z k a k
p e r t s o n e n a r t e a n



Emakume, kirola
bateraezinak
aurrera egin gabe
atzera pausua

Palestinako neska
asko eta asko
gutxietsiak dira
nahiak lortzeko
kirolean trebeak
egi bihurtzeko
esperantza gutxikin
aurrera jarraitzeko



P a l e s t i n a k o n e s k a k
b o r t x a t u a k d i r a
u m e a k e u k i t z e a
z i g o r t u a k d i r a

B i z i m o d u t r i s t i a
d a r a m a t e b e r t a n
h a r r e s i a p a s a t z e n
d a b i l t z a l a n e t a n



Informazio gabe
ez dakigu ezer
haurrak sufritzen
dabiz hori dago oker

Emakumeen biziak
seme-alabarik
Palestinako gerra
zoriotso barik



P a l e s t i n a r r a k d a u d e
a r n a s t u e z i n i k
e t a g e r o g u g a u d e
i n f o r m a z i o b a r i k

U m e a k h i l t z e n d a u d e
j a n a r i r i k g a b e
g u k e u r i l a g u n t z e a
i z a n g o d a h o b e

Liburuxka honetan protagonistek egindako analisi eta iritziek ez dute UNRWA Euskadi eta Bizkaiko Foru Aldundiaren iritzia islatzen ezinbestean.



erkidego batzordea
unrwa
euskadi

**Palestinako
errefuxiatuekin**

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral